

11/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2023ko irailaren 26an, arratsaldeko 19:02tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2023ko uztailaren 18an egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu dute.

2.- 2022 EKITALDIKO KONTU OROKORRA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

2023ko abuztuaren 29an, Udal Ogasun eta Kontueterako Batzorde Bereziak honako irizpen hau eman du:

“... ”



ANOETAKO
UDALA

Kontuetarako Batzorde Bereziaren lehendakariak azaldu die bertaratutakoei: batetik, 2023ko uztailaren 10eko 133. Gipuzkoazko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, Kontu Orokorra, Batzorde horren txostenarekin batera, jendaurrean jarri zela; bestetik, interesatuei hamabost egun balioduneko epea eman zaiela erreklamazioak, eragozpenak zein oharrak aurkeztu ahal izateko; azkenik, adierazitako epean ez dela jaso ez erreklamaziorik, ez eragozpenik, ezta oharririk ere.

Adierazitako azalpenak eman ondoren, besterik gabe eta eztabaidarik egin gabe, Kontuetarako Batzorde Bereziak, aho batez, Udalbatzari honako akordioa proposatzea erabaki du:

ERABAKI DU

Lehenengoa. 2022 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.

Bigarrena. Kontu Orokorra eta hura osatzen duen dokumentazio guztia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizaziora bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

...”.

Behin Idazkariak Udal Ogasun eta Kontuetarako Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. 2022 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartzea.

BIGARRENA. Kontu Orokorra eta hura osatzen duen dokumentazio guztia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizaziora bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

3.- 2024. URTERAKO ANOETAKO JAI EGUNAREN IZENDAPENA BERRESTEKO PROPOSAMENA.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailaren maiatzaren 30eko 71/2023 Dekretuak (2023.06.14ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko 2024rako jaiegunen egutegi ofiziala onartu du.

Aipatutako dekretuaren 2.2 artikuluan adierazten duenez, udalek tokiko jaiegunen proposamenak egin eta dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali beharko dituzte, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hala, Alkateak, 2023ko irailaren 5ean Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko lurralde-ordezkaritzari helarazitako idatzi bitartez, **2024ko maiatzaren 30, Gorpuzti eguna**, Anoetako Udalerriko jaietako egunetako bat izatea proposatu zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Berrestea Alkateak 2023ko irailaren 5eko idatzi bitartez proposatutako 2024. urterako Anoetako jai egunaren izendapena.

BIGARRENA. 2024ko maiatzaren 30a, Gorpuzti eguna, Anoetako Udalerriko jai izendatzea 2024. urterako.

4.- ANOETA, IRURA, ALEGIA, IKAZTEGIETA, ALTZO, AMEZKETA, BALIARRAIN, ORENDAIN ETA ABALTZISKETAKO UDALERRIETAKO BAKE-EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA SORTZEKO PROPOSAMENA.

411/1998 Dekretuak, abenduaren 22koak, bake-epaitegietako Justiziarri buruzkoak, V. kapituluaren arautzen ditu bake-epaitegietako idazkaritzen elkarteak. Besteak beste, 18. artikuluan elkarteak eratzeko baldintzak xedatzen ditu:

“... ”

Idazkaritzen elkarte bat eratzeko baldintzak hauek dira:

a) Bildu nahi diren bake-epaitegiek barruti judizial berekoak izan beharko dute.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideek egokiak izan beharko dute, idazkaritzak batu dituzten bake-epaitegi guztietako egitekoei behar den moduan erantzun ahal izateko.

...”.

Kasu honetan, bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratu nahi duten eskatzaileek goian adierazitako baldintzak betetzen dituzte:

a) Bildu nahi diren bake-epaitegi guztiak Tolosako barruti judizialekoak dira.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideak egokiak dira, idazkaritzak batu dituzten bake-epaitegi guztietako egitekoei behar den moduan erantzun ahal izateko, ondorengoak kontutan hartuta:

- i. Bake-epaitegi guztien arteko komunikazioa bermatzeko, Alegiako udalerrian kokatuko da elkartearen egoitza nagusia.
- ii. Alegiatik gainerako udalerrietara dauden distantziak 11 km-tik beherakoak dira eta udalerritik guztiak errepide, tren eta autobus bidez komunikatuta daude, udalerritik eskatzaileen artean egindako eta Osoko Bilkuraren deialdiarekin batera bidalitako memorian jasotzen den bezala.

Halaber, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 19. artikulua bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak sortzeko prozedura hasteko bi aukera ematen ditu: ofizioz edota eraginpean dauden udalek arrazoituta eta eskatuta. Kasu honetan, bake-epaitegien idazkaritzen elkarteak eratzeko prozedura aldeek eskatuta hasten da eta, beraz, adierazitako arauaren 20. atalean ezarritako izapidetzea jarraitu beharko da.

Artikulu horren arabera, “*elkartea eratzeko eskabidea justiziaren alorreko eskumenak dituen sailean Justizia Administrazioako Harremanen eskumendun den Zuzendaritzari bidali beharko zaio*” eta “*eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira*”:

1.- *Egiaztagiriak, eraginpean dauden udaletako udan organoek eginak, udal horiek elkartea eratzeko espedienteari hasiera ematea eta hurrengo puntuan aipatzen den txostenaren edukia onartu zituztela egiaztatzen dutenak.*

2.- *Elkartea eratzeari buruzko txostena*”.

Batetik, egiaztatzeri dagokionez, eskariarekin batera aurkeztuko dira eraginpean gauden udalon osoko bilkurek hartutako akordioen ziurtagiriak, elkartea eratzeko espedienteari hasiera ematea eta elkartea eratzeari buruzko txostenaren edukia onartzea adosten dutenak. Bestetik, elkartea eratzeari buruzko txostenari dagokionez, deialdiarekin batera bidali den memorian jasotzen da, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikuluan eskatutako puntu guztiekin, zeinetan justifikatuta geratzen den udalerrri eskatzaileei ezinezkoa zaigula bake-epaitegiak eta erregistro zibilak kudeatzea legeak ezarritako baldintzetan, ezta modu duinean ere, dauzkagun baliabide pertsonal eta materialekin behintzat. Hala, adierazitako memorian honako puntu hauek jorratu dira:

- a) Hartzen dituen bake-epaitegiak.
- b) Elkarrearen egoitza.
- c) Eraginpeko bake-epaitegiek jasaten duten lan-karga, gutxienez bukatutako azken urte judizialari dagokionez.
- d) Udalerriko biztanleriaren datuak eta bake-epaitegietako egiteko erantzuteko dauden langileak mantentzeko ekonomia baliabideak, proposatutako elkartea egokia dela justifikatzeko.
- e) Behar dituzten langileak eta elkartea osatuko duten epaitegietako lanegun, lanordu eta jendea hartzeko ordutegiaren hasierako programaziorako eta barne antolamendurako behin-behineko proposamena eta hilero egingo diren joan-etorrien aurreikuspena.
- f) Epaitegietako egoitzen artean eta elkarteko udal nagusien artean dauden komunikabideen egokitasunari buruzko aipamena.

Halaber, 411/1998 Dekretuak 20.2 artikuluan xedatutako horiez aparte, azken puntu bat ere landu da memorian, eskari moduan: “g) Euskara, proiektatutako elkartea osatzen duten udalerrien arteko elementu loteslea”. Izan ere, kontuan izan behar da Tolosaldea dela udalerrri euskaldunen eta arnasguneen kontzentrazio handienetakoa duen eskualdea eta, bereziki, bake-epaitegietako idazkaritzen elkartea sortzeko proiektua osatzen duten udalerrri guztiek dutela arnasgune eta udalerrri euskaldun izaera komuna. Gainera, eskatzaile guztiak daude UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean), Abaltzisketa izan ezik, bertan sartzeko ezaugarriak betetzen baditu ere. UEMAk 2021. urterako jasotako datuen arabera, udalerrri bakoitzeko euskaldunen ehunekoak ondorengoak dira:

Udalerrriak	Euskaldunen %
Anoeta	71,23

Irura	73,01
Alegia	76,17
Amezketza	88,80
Ikaztegieta	76,60
Altzo	87,63
Abaltzisketa	92,13
Orendain	87,21
Baliarrain	88,51

Beraz, agerikoa da, gertutasunaz eta barruti judizialaz at, euskara dela udalerrri guzti horien arteko sare naturala osatzen laguntzen duen funtsezko elementuetako bat.

Aurreko guztia oinarri hartuta, azpimarratu da memorian bake-epaitegien idazkaritzen elkartea eratu nahi duten eskatzaile guztiontzako berebiziko garrantzia duela euskarazko zerbitzu duina mantentzeak eta bermatzeak behin elkartea eratu ondoren, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan esleitzen zaizkigun eskumenen arabera, eskatzen da bake-epaitegiatako idazkaritzen elkarteari esleitzen zaizkion langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezatela zerbitzu egokia eta kalitatezkoa euskaraz emateko, eta hala eskaini dezatela. Aurrekoa herritarrei aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak bermatuta gera daitezen eta eraginkorrak izan daitezen, alegia, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko eskubidea, ahoz edo idatziz, Administrazioarekin eta edozein erakunderekin, besteak beste Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. artikulua eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 6. artikulua aitortuta.

Horregatik guztiagatik, Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketza, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako udalerrietako bake-epaitegien idazkaritzen elkartea eratzea proposatzen da, guztion artean egindako memoriaren baldintzetan.

Behin Idazkariak aurrekoak azaltzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Onartzea Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketza, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako udalerrietako bake-epaitegien idazkaritzen elkartea eratzeke proposamena. espedienteari hasiera ematea.

BIGARRENA. Onartzea Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Altzo, Amezketza, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketako udalerrietako bake-epaitegien idazkaritzen elkartea eratzeke espedienteari hasiera ematea.

HIRUGARRENA. Onartzea espedienteari erantsitako txostenaren edo memoriaren edukia, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikulua arabera.

LAUGARRENA. Eskatzea Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuari bake-epaitegiatako idazkaritzen elkarteari esleitzen zaizkion

langileek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezatela zerbitzu egokia eta kalitatezkoa euskaraz emateko, eta hala eskaini dezatela.

BOSGARRENA. Erabakiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailburuari, espedientearen izapidetzea lehenbailehen egin dadila erregutuz.

5.- ANOETAKO "LASARBE" A-14 EXEKUZIO UNITATEA BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUKO URBANIZAZIO KARGAK GAUZATZEARI ETA BETETZEARI BURUZKO HIRIGINTZA HITZARMENA BEHIN-BEHINEAN ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak puntu honen gaineko testuingurua azaldu die bertaratutakoei, ondorengo aurrekariak laburbilduko lituzkeena.

2011ko martxoko "A14, A20, S1 eta R1 eremuei buruzko Anoetako Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa eta Zuzenketa" dokumentuan jasotako hirigintza zehaztapenak betez, "Lasarbe" A.14 sektoreari antolamendu xehatua eman zitzaion Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko foru diputatuaren 2011ko uztailaren 4ko Foru Aginduaren bidez behin betiko onartutako Plan Partzialaren bidez (2011ko uztailaren 29ko GAO, 144. zk.).

Plangintza-dokumentu horrek 58.542 m²-ko eremu bat antolatzen zuen, hirigunearen hegoaldean kokatuta eta "Lasarbeko erreka" izeneko erreka txiki batek zeharkatuta (erreka horrek izena ematen dio), eta bizitegi-erabilerako hamar eraikin eraikitzea aurreikusten zuen, horietako asko babes publikoko araubidearen mende.

Eremuko eraikin eta espazio publikoen multzoari zerbitzua ematen zion tokiko bide-sistema ordena dibertsifikatua eta hierarkizatua proiektatzen zen, antolamendua egituratzen zuten lau arteriaz osatuta. Proiektatutako bi arteria nagusiak honako hauek dira: "C", sektorea hirigunearekin lotzen duena Solkorre kalea luzatuz, eta "B", GI-3650 errepidearekin lotzen duena (Irura-Tolosa). Bestalde, "D" adarra "A" adarraren zati bat da, eta eremuaren goiko aldeko barne igarobideak artikulatzeko proiektatu da, eremu hori mendebaldetik inguratzen duen landa-ingurunearekin komunikatuz. Azkenik, "A" adarra proiektatu da eremuaren hegoaldeko mugan, "B" adarrerako laguntza gisa, eta sektorean antolatutako eraikinek behar dituzten trafiko beharrak kontuan hartuta.

Era berean, aipatutako plangintza-dokumentuak aurreikusten zuen sektoreko berdeguneen tokiko sistemaren zati bat, haren hegoaldean kokatua, erabilera publikorako herri-baratzeak eraikitzeke erabiltzea.

Plangintzaren aurreikuspenak garatzeko, sektoreak, gaur egun, dagoeneko onartuta dauden hirigintza-egikaritzako tresna guztiak ditu: Urbanizatzeko Jarduketara Programa (2011ko martxoaren 31, apirilaren 8ko GAO, 68. zk.), Birpartzelazio Proiektua (2011ko urriaren 27a, azaroaren 2ko GAO, 207. zk.) eta Urbanizazio Proiektua (2012ko maiatzaren 23a, maiatzaren 29ko GAO, 101. zk.).



Lurzoruaren jabe pribatuen aniztasuna eta "Lasarbe" A-14 sektorerako aurreikusitako hirigintza-eraldaketako jarduketaren dimentsioa kontuan hartuta, UJPak Lankidetzeta Sistema Publikoaren figuraren pean gauzatzea ezarri zuen, eta urbanizazio-obrak bi fasetan egikaritzea erabaki zuen:

- Programatutako urbanizazio-obren lehen fasean, Lasarbe erreka Leku Eder etxetik Hernialdeko errepidearekin bat egiten duen tokiraino desbideratzea, B eta C bide nagusiak egitea eta bide horiek mugatutako plaza, erreka eta errepidea urbanizatzea sartzen ziren;
- Eta bigarrena, sektorearen gainerakoa, "A" eta "D" bideak egitea barne hartzen duena, eta aurretik aipatu den herri-baratzeetarako espazioa.

Gaur egun, A.14 sektorearen urbanizazioaren lehen fasea guztiz gauzatuta dago, eta Anoetako Udalak 2015eko otsailean egin zuen harrera.

Lehen fase hau gauzatzearekin batera, RA.B1, RA.B2, RA.B4, RA.B5 eta RA.C bizitegi-lurzati-taketako eraikinak eraiki dira. Urbanizazioaren bigarren fasea bat dator eraikitzea aurreikusita dagoen lursail hauekin: udal-titulartasuneko eraikinak RA.A2 eta RA.A3 lurzati-taketan, titulartasun pribatukoak RA.A1a, RA.A1.b eta RA.B3 lurzati-taketan, eta zuzkidura-eraikin publikoak EC.1 lurzati-taketan antolatuta.

Hasiera batean, eta azaldutako arrazoiengatik, sektorearen urbanizazioa ekimen publikoak sustatu bazuen ere, 2018an, Construcciones Aburuza SL merkataritza-sozietateak, egikaritu gabe zeuden lurzati pribatu eraikigarri guztiak eskuratu ondoren, UJPa aldatzea sustatu zuen, lankidetzako jarduketa publikoko sistemaren ordez ituneko sistema pribatua ezartzeko. Aldaketa hori behin betiko onartu zuen Anoetako Udalak 2018ko azaroaren 12an.

Planean aurreikusitako etxebizitzaren erdia baino gehiago eraikita daudenez, eta lotutako urbanizazioaren lehen faseko obrak osorik gauzatuta daudenez, "B" eta "C" bide-taketak barne, Anoetako Udalak berriz aztertu du "A" bidea egiteko beharra eta Lasarbe erreka-aren ingurunean ingurumena eta paisaia lehengoratzeko esku-hartze batzuk egiteko aukera, azken batean, lurzoruaren artifizializazio txikiagoa, lurzoru horien izaera naturala lehentasunez zaindraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikuluan eta Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako hiri-garapen jasangarriaren printzipioari jarraikiz. 7/2015 Legea, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.

Horrela, udalaren enkarguz, eta esku-hartze horrek sektoreko trafikoan izan ditzakeen eraginak ezagutze aldera, Endara Ingenieros Asociados SL enpresak egindako trafiko-azterlana egin da. 2021eko irailean, honako ondorio hauek atera ziren:

- Plangintzak aurreikusten dituen etxebizitza guztiak okupatzen direnean, Iturtxulo kalean trafikoa % 67 haziko dela aurreikusi da.
- Puntako orduan Iturtxulo kaletik 182 ibilgailu irtengo dira: 148 San Juan kalerantz eta 34 Hernialderantz.
- Puntako orduan 51 ibilgailu sartuko dira Hernialdeko errepidetik Iturtxulo kalera: 42 San Juan kaletik eta 9 Hernialdetik.

- Beraz, puntako orduan Iturtxulotik 233 ibilgailu igaroko dira (bi noranzkoen batura). Balio hau bizitegi-gune bateko kale batentzako egokia da.
- Bidegurutzearen gaitasuna nahikoa da plangintzak aurreikusten dituen etxebizitza berriek eragingo duten trafiko gehigarria jasateko. Zerbitzu maila mantendu egiten da eta puntako orduan atzerapena 3 segundo gehiagokoa (%23) besterik ez da.

Era berean, lehen aipatutako garapen jasangarriaren printzipioetan oinarrituta, Anoetako Udalak berriz aztertu du hasiera batean Sektoreko Plan Partzialean eta Urbanizazio Proiektuan jasotako herri-baratzeen urbanizazio-elementuak egikaritzeko beharra.

Anoetako Udalak ondorioztatu duenez, interes orokorrerako onuragarria da aurreko atalean adierazitako elementu urbanizatzailak ez egikaritzea, eta kontuan hartuta Construcciones Aburuza SLk jakinarazi duela udazken honetan 2. faseko urbanizazio-obrak egikaritzen hasteko asmoa duela, 2024ko ekainean bukatuta egon daitezen, bi alderdiek hirigintza-hitzarmen bat negoziatu dute, esku hartzen duen subjektu bakoitzak egin beharreko jarduerak arautzeko eta bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko.

Hainbat negoziazio-saio egin ondoren, 2023ko irailaren 21ean, Anoetako Alkatetzak Construcciones Aburuza, S.L.k planteatutako azken eskaintzari heltzea erabaki zuen (357.087,93 euroko zenbatekoan finkatzea “A” bidearen eta herri-baratzen zenbatekoen batura), eta orain Anoetako “Lasarbe” A-14 exekuzio unitatea birpartzelatzeko proiektuko urbanizazio kargak gauzatzeari eta betetzeari buruzko hirigintza hitzarmena behin-behinean onartzeko proposamena egiten dio Udalbatzari.

Hala ere, edozein erabaki hartu baino lehen, hitza ematen dio Idazkari Kontu-hartzaileari bere txostenaren berri eman dezan; izan ere, Osoko Bilkurarako deialdia egiterako orduan, Idazkaritza honek Alkatetzari eta deitutako Udalbatzako kideei ohartarazi zien gai-zerrendako puntu horrek ez zuela Idazkaritza-Kontuhartzailearen nahitaezko txostenik, eta, beraz, Osoko Bilkuraren aurretik egiten saiatuko zela edo, denbora nahikorik izan ezean, bilkuran bertan egingo zuela, betiere, Udalbatzak bere ebazpena eman baino lehen.

Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostena azaldu du, egun horretan bertan egindakoa eta Osoko Bilkura egin baino lehen Korporazioko kide guztiei korreoz bidalitakoa. Txosten horretan Idazkari Kontu-hartzaileak honako ondorio hauek adierazten ditu:

“...

ONDORIOAK

- Legearen kontraktotzat jotzen duela sinatu beharreko hitzarmenean jasotako ituna, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren laugarren zenbakian xedatutakoaren arabera, izan ere, Anoetako Udalak Construcciones Aburuza, S.L.ri legez dagozkion hirigintza-kargetatik salbuestea baitakar.

- Idazkari Kontu-hartzaile honek alde aurretik jakinarazten du ezin izango duela bete hitzarmenaren bosgarren hizbaketako azken paragrafoan jasotako betebeharra, honela diona: “*Ordainketa egin ondoren, Anoetako Udalak Construcciones Aburuza SLren*

jabetzako orube bakoitzaren urbanizazio-kargak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria egin beharko du, Jabetza Erregistroan inskribatzeko”.

- Halaber, Idazkari Kontu-hartzaile honek alde zuzenetik jakinarazten du ez dakiela hitzarmenaren laugarren hizbaketakoko hirugarren paragrafoan xedatutakoa bete ahal izango den. Horren arabera, “2. faseko urbanizazio-obrak amaitu ondoren, Construcciones Aburuza SLk Udalarari jakinaraziko dizkio obrak entregatzeko eta eskura jartzeko aurreikusitako data, toki eta ordua, eta harrera-akta eman eta hurrengo 20 egunen barruan egin beharko da hori, 2/2006 Legearen 198 artikulua”. Baina kontutan hartu behar da harrera-akta egiterako orduan oraindik ez direla behin betiko onartuta egongo ez “Lasarbe” A.14 Sektoreko Plan Partzialaren aldaketa puntuala, ezta 2. faseko urbanizazio-obrei ekiteko beharrezkoak diren gainerako hirigintza-egikaritzako tresnen aldaketa, birpartzelatze-proiektuarena barne. Hori bete ahal izateko, Idazkaritza honen adostasuna ez ezik, udal-arkitekto teknikoarena ere beharko da, baita, geroago, jabetza-erregistratzailearena ere.

...”.

Idazkari kontu-hartzaileak bere txostena azaldu ondoren, Alkateak Construcciones Aburuza, S.L.ren eskaintza onartzeko eta proposatutako hitzarmena sinatzeko arrazoiak azaldu ditu, ondorengo adieraziz:

“...

Hasteko argitu nahiko nuke lantzen ari garen gaia aurreko legegintzalditik datorrela, dagoeneko honen inguruko hainbat lanketa eginak daudela eta gaur egun udal korporazioa osatzen dugunoi tokatu zaigula gai zehatz hau landu behar izatea.

2008an Hirigintza plana zehaztu eta onartu zenetik Hirigintza ulertzeko modua, bizi kalitatea ulertzeko modua, haur eta nerabeen heziketan naturak duen garrantzia, gune eta herri ibilbide seguruak sortzeko beharra, ibilgailuen gainetik oinezkoen lehentasuna bermatzea; eta beste hainbat balore eta irizpide aldatu dira, zorionez. Eta momentu honetan guri dagokigu Hirigintza planak zehazten zuena eta gaur egun gizarte eta herri bezala zehazten ditugun lehentasunen arteko oreka bilatzea.

Udal korporazio hau hasieratik oso zorrotza izaten saiatu da Construcciones Aburuza, S.L. enpresarekin, jakitun izan arren negoziazio hau bide txarretik joan ezkerorantz, eta azkenik Hirigintza planean zehaztua zegoen biala egin ezkerorantz, herri bezala landu dugun herri proiektuak, eta zuzenean herritarrek, galtzeko asko dutela. Izan ere, behar ez dugun eta herriko talde eta eragile askok oztupo bezala ikusten duten bial bat izango genuke ikastolarako bidean ibilgailuen trafikoko handituko lukeena eta gainera proiektatze dugun aisialdi gunerako ez genuke dirurik jasoko. Horrela gutxienez herriak eskatzen digun proiektua gauzatu dezakegu alperreko bial bat kenduz, eta biala eginez gero jasoko ez genukeen diru kantitate bat jasoko dugu beharrezkoa ikusten dugu proiektua gauzatu ahal izateko.

Ez da erreza izan erabaki hitzarmen hau onestea, eta horretarako aurreko legegintzaldian erabaki honen inguruan lanean aritu ziren ikastola, guraso elkarte eta hezkuntza eragileekin landu dugu gai hau. Jaso dugun mezua argia izan da: biala ez dugu behar, etorkizuneko Anoetarentzat ditugun erronken aurkako norabidean doa eta nola ahala geratu behar da. Herritarrekin buruturiko parte hartze prozesuan adostutako aisialdi gunea egi bihurtzea dagokigu.



ANOETAKO
UDALA

Guk mezu hori jaso dugu eta orain udaletik hori egikaritzeko pausuak ematea dagokigu. Lehen pausua hitzarmen hau sinatzea da, bialaren ordezt egin nahi dugun aisialdi eta hezigune proiektua gauzatzeko hurrengo pausuekin jarraitzeko.

Aitortzen dut alkate bezala eta udal korporazioaren buru bezala atsekabetuta nagoela Construcciones Aburuza, S.L. enpresaren jarrerarekin. Etxebizitza eta Hirigintza eraikuntzak esku pribatuetan dauden momentutik diru gosea eta etekin ekonomikoen lehenestea, herri proiektuen eta herritarren beharren gaintetik ipintzen dira; udalaren, herritarren eta herri eragileen kalterako. Hau horrela izango da zerbitzu hauek publiko egiten ez diren bitartean, eta kasu honetan guri tokatu zaigu ondorio hauek pairatzea.

Ez da guk nahiko genukeen akordioa, baino herriarengandik jaso dugun mezua argia da eta aurrera egitea dagokigu.

...”.

Alkatearen azalpena amaitu ondoren, EAJ-PNV talde politikoko bozeramaile Nuria Carbonellek hitza hartu du eta hitzarmena sinatzea bultzatzen duten helburu eta arrazoiekin guztiz ados dagoela adierazi du, ez ordea formarekin. Galdetu du ea legeriarekin bat datorren modurik ez ote dagoen hitzarmenak erakusten dituen legezko ziurgabetasunak saihesteko, Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostenean jasotakoarekin bat etorritik. Alkateak eta Idazkariak erantzun diote, printzipioz, ez dirudiela hitzarmena bultzatzen duen helburua gauzatzeko beste biderik dagoenik.

Baieztapen horren ondoren, elkarrizketa zabala sortu da korporazioko kideen eta Idazkaritzaren artean, azken honek dagokion aholkularitza juridikoko eginkizuna betetz. Eginkizun hori hitzarmenaren bideragarritasun faktikoari eta juridikoari buruzkoa da batez ere, izan ere, Alkateari eta zinegotzietei kezka sortzen die etorkizunean sor litezkeen arazoak, hitzarmenean hartutako konpromisoak betetze aldera.

Behin zalantza guztiak argitutakoan eta Alkateak eztabaida bukatutzat emandakoan, gai-zerrendako puntu honen xede den gaia bozkatu da, lehen proposatu bezala, eta bozketaren emaitza honako hau izan da:

EBAZPENA

ALDEKO BOZKAK: Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea), Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea), Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea), Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea), Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea), Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea) eta Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea). Guztira, aldeko 7 bozka.

ABSTENTZIOA: Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea), Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea) eta Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea). Guztira, 3 abstentzio.

Ondorioz, gehiengoz onartua izan da ondorengoak:

LEHENENGOA. Anoetako “Lasarbe” A-14 exekuzio unitatea birpartzelatzeko proiektuko urbanizazio kargak gauzatzeari eta betetzeari buruzko hirigintza hitzarmena behin-behinean onartzea.

BIGARRENA. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 7. Xedapen Gehigarriaren zortzigarren paragrafoan xedatutakoa betetz, irekitzea

jendaurrean jartzeko eta alegazioak aurkeztu ahal izateko hogeit hamar eguneko epea, eta jartzea epe horretan eduki osoa lurralde historikoko aldizkari ofizialean.

II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

6.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2023ko uztailaren 14tik 2023ko irailaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, Nuria Carbonellek, 395. dekretuari buruz galdetu du, horretan aipatzen den 670/2022 prozedura laburtua zeri buruzkoa den jakin nahian. Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta honek azaldu du administrazioaren ondare-erantzukizunari buruzko prozedura laburtu bat dela, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian Anoetako Udalaren aurka bideratutakoa. Izan ere, ibilgailu batek kalteak jasan zituen 2021. urtearen amaieran, Anoetako Industrialdea 6 zk.ko industrialdearen inguruan, galtzadan izandako zulo baten ondorioz. Prozeduran eztabaidatzen zen gai nagusia zen nori zegokion galtzada hori mantentzea; izan ere, Udalak, garai hartako udal-arkitektoak emandako txostenaren arabera, foru-titulartasuneko zela uste zuen. Alkateak Idazkariaren azalpenari gehitu dio, antza denez, errepidearen titulartasunari buruzko eztabaida egon zela, Ertzaintzak emandako argiketari eta testigantzetan datu nahasgarriak zeudelako zuloaren kokapenaren koordinadei dagokionean. Azkenik, Idazkariak gaineratu du jada eman dela ezespen-epaia, Udala kondenatuz, baina oraindik ez dela formalki jakinarazi. Hala denean, Udalbatzari behar bezala jakinaraziko zaio.

Azalpen horiek emanda, zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

7.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

2023.08.01	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.968,19 €
Kontzeptua	
Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko uztailleko nomina	
Laburpena	
<p>Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko abuztuaren lein eragozpenezko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenena urteetan zehar kontratatze “programa” baten barruan ezkatututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.</p>	

409. DEKRETUA	
2023. 08.01	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.402,94 €
Kontzeptua	
Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko uztailleko nomina	
Laburpena	
<p>Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2023ko abuztuaren lein eragozpenezko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehienezko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gaingitu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragrafoaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espeditentearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.</p>	

419. DEKRETUA	
2023.08.07	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
EGOITZ JAUREGI ITURRIOZ	72507188X
ME	Zenbatekoa
839-2023	169,48 €
Kontzeptua	
Udalak Bake-epaitegiko idazkariari ordaindutako ordainsari osagarria	

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko abuztuaren 7an egindako eragozpeneko txostena.

Bake-epaitegiko idazkari funtzioak betetzen dituen pertsona ez da udal-funtzionario bat; beraz, Estatuko Administrazioak kargua betetzeagatik ematen duen ordainsaria jasotzeko eskubidea baino ez du, eta Udalak ezin dio aparteko ordainsaririk ordaindu, ez baita udal-administrazioan integratzen.

438. DEKRETUA

2023.08.29

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCIARENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.084,13 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2023ko abuztuko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko abuztuaren 29an eragozpeneko txostena egin zuela adieraziz, besteak beste: gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenaren duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenaren urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenaren betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin.

439. DEKRETUA

2023. 08.29

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.402,94 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2023ko uztaileko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2023ko abuztuaren 29an eragozpeneko txostena egin zuen adieraziz, besteak beste: “I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriak ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuna Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

441. DEKRETUA

2023.08.31

Hartzekodunak	IFZ / IFK
AXA AURORA VIDA SA DE SEGUROS Y REASEGUR	A48464606

Prozedura

Udal langileen bitzita eta istripu aseguruua (poliza 59019832)

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
6701	2023.07.12.	5.400,72 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailtzak 2023ko abuztuaren 31n egindako eragozpenezko txostena.

Anoetako Udaleko udal langileen bitzita eta istripu aseguruua urtez urte kontraturik gabe eta inolako espedienterik izapidetu gabe ordaindu da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Gainera, beti enpresa berari ordaindu zaio. Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

442. DEKRETUA

2023.08.31

Hartzekodunak	IFZ / IFK
CALEFACCIÓN TARSAT, S.L.	B20765665

Prozedura

Kiroldegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
TB-2023-F 17	2023.07.12.	496,10 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailtzak 2023ko abuztuaren 31n egindako eragozpenezko txostena.

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik;
- Kiroldegiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

443. DEKRETUA

2023.08.31

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura

Serbidorearen segurtasun kopien mantenua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P23072315	2023.07.03.	97,31 €

P23082279

2023.08.01.

97,31 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko abuztuaren 31n egindako eragozpenezko txostena.

- Orain arte Sarenat, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilia. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.

- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen arabera;

- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, 2021eko kontratu txikia ez da SARENAT, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

444. DEKRETUA

2023.08.31

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

Prozedura

Fotokopien zerbitzu-kontratua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
844332380	2023.08.08.	530,43 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko abuztuaren 31n egindako eragozpenezko txostena.

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.

- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

445. DEKRETUA

2023.08.31

Hartzekodunak	IFZ / IFK
Securitas Direct España, S.A.U.	A26106013

Prozedura

Alarma mantenu-zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2307C00017159	2023. 07.01.	306,15 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2023ko abuztuaren 31n egindako eragozpenezko txostena.

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren

prestazioak kontratatzeko.

- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Securitas Direct enpresarekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; harrezkeroztik Anoetako Udalak Securitas Direct enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarriko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak alarma-mantenu zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko ondorengo espedienteen berri eman du:

- ❖ OMI 3/2023 espedientearen berri ematen du, Alkateak 428. Dekretuz (2023ko abuztuaren 10ekoa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
Ez dago espedienterik (beherago azalduta)	
Euskal pilota saioengatik Kuku Elkartearen alde hartutako obligazioak, guztira 4.221,15 eurokoak.	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
2023-martxoa. Euskal pilota saioak Fra. zk. 03-23 Kuku Elkartea (G20144366) Fakt-474 (225) Sarrera erregistroa: 2023.05.31.	1.561,50 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
2023-apirila. Euskal pilota saioak Fra. zk. 04-23 Kuku Elkartea (G20144366) Fakt-475 (225) Sarrera erregistroa: 2023.05.31.	895,50 €

Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
2023-maiatza. Euskal pilota saioak Fra. zk. 05-23 Kuku Elkarte (G20144366) Fakt-703 (225) Sarrera erregistroa: 2023.07.11.	1.509,75 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
2023-ekaina. Euskal pilota saioak Fra. zk. 06-23 Kuku Elkarte (G20144366) Fakt-704 (225) Sarrera erregistroa: 2023.07.11.	254,40 €

- ❖ OMI 4/2023 espedientearen berri ematen du, Alkateak 466. Dekretuz (2023ko irailaren 14koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
Ez dago espedienterik. Emandako zerbitzua: Herriko plazako estalkiaren obraren zuzendaritza.	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 14.1 FAKT-331 3642 2023.04.17.	1.649,10 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. A-23, 1 FAKT-856 3642 2023.09.06.	1.649,10 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
ZURERIRA STUDIO, S.L.P. B75235903	Herriko plazako estalkiaren obraren zuzendaritza.
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Hirigintza Saila	Alkatea

- ❖ OMI 5/2023 espedientearen berri ematen du, Alkateak 467. Dekretuz (2023ko irailaren 14koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
Ez dago espedienterik. Emandako zerbitzua: Herriko bide batean egondako luizia konpontzeko beharrezko lanak.	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 230127 FAKT-558 1390 2023.06.13.	5.086,57 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
EXCAVACIONES PERU, S.L. B20643557	Herriko bide batean egondako luizia konpontzeko beharrezko lanak.
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Hirigintza Saila	Alkatea

- ❖ OMI 6/2023 espedientearen berri ematen du, Alkateak 468. Dekretuz (2023ko irailaren 14koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

Jatorrizko espedientea	
Ez dago espedienterik. Emandako zerbitzua: Osasun zentroko garbikariak gordetzeko pertsianaren konponketa	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk.492 FAKT-573 295 2023.06.14.	1.012,47 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
PERMACA, S.L. B20172839	Osasun zentroko garbikariak gordetzeko pertsianaren konponketa
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Hirigintza Saila	Alkatea

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK



GALDE-ERREGUAK

8.- GALDE-ERREGUAK.

Ez dago galde erregurik.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:43tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

Erika Sagarzazu Camino